



TUTORETZA-PLANA: BERDINEN ARTEKO TUTORETZA

–Programa Pilotua–

AURKIBIDEA

1. JUSTIFIKAZIOZKO ATARIKOA	3
2. HELBURU OROKORRAK	5
3. ESKU HARTZEKO ARLOAK. EDUKIAK	5
4. METODOLOGIA	7
4.1. PROZESUAREN FASEAK	7
4.2. ESKU-HARTZEA	10
4.3. GIZA BALIABIDEAK	13
4.4. BALIABIDE MATERIALAK	15
5. EBALUAZIOA	16
6. BIBLIOGRAFIA	17

1.- JUSTIFIKAZIOZKO ATARIKOA

Unibertsitatera joan aurretik, ikasleek hainbat hezkuntza-aro gainditu behar izaten dituzte, eta horiek guztiek aldaketa txikiak dakartzate euren bizimodura. Adinean aurrera egin ahala, aldaketak geroz eta garrantzitsuagoak izaten dira. Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzarako eta hortik Batxilergorako jauziak hainbat aldaketa ekar ditzake (curriculumekoak, eta beharbada, baita ikastetxe-aldaketak, ikaskide-aldaketak eta ingurune-aldaketak ere), eta ondorioz, horietara egokitu beste erremediorik ez dute. Alabaina, Batxilergotik Unibertsitaterako jauzia da zinez aldaketa eta erabaki-hartze handienak dakartzana: ikasketak aukeratu, unibertsitatea aukeratu, erakunde berri bati egokitu, metodologia berrietara ohitu, beste irakaskuntza- eta ikaskuntza-sistema batean jardun, etab. Trantsizio hori, gainera, eboluzio-garapenaren une jakin batean gertatzen da: nerabezaroan. Bizitzako etapa hori, gainera, maila askotako aldaketen etapa izan ohi da (besteak beste, fisikoa, kognitiboa eta gizarte-aldaketa). Aro edo etapa horretan, nerabeek euren nortasuna bilatu behar izaten dute, eta horixe izaten da pertsonen garapen psikologikoaren une kritikoenetako bat.

Horrenbestez, unibertsitatean sartzea aldaketa bat gehiago da, gazteari bizitza-aldaketa ugari gertatzen ari zaizkion unean. Gainera, unibertsitatean hasteak, gehientsuenetan, familia uztea dakar, beste hiri batean bizitzen jartzea, independentzia eta autonomia maila handiagoa izatea eta gizarte-ingurunez aldatzea. Aldaketa hori ez bada behar bezala egiten, hainbat krisialdi eragin ditzake; besteak beste, krisialdi akademikoa, eta horrek, azkenean, ikasketak uztera ere eraman dezake ikaslea.

Ikasleek hasiera batean unibertsitatera egokitzeko izaten dituzten premia edo zailtasun handienak, batez ere, informazio- edo/eta aholkularitza-gabeziarekin lotutakoak izaten dira; hala nola graduen egiturari buruz, unibertsitatearen antolamenduari buruz, araudiei buruz, euren eskubide eta betebeharrei buruz, ikasleen ordezkariari buruz, etab. Eta baita, jakina, une horretan duten bizitza-aroarekin zerikusia duten premia pertsonalekin lotutakoak ere.

Testuinguru honetan, berdinen arteko tutoretzak; alegia, ikasleen arteko laguntzak (informazioa, aholkularitza, orientazioa eta laguntza) asko lagun diezaieke Batxilergoa amaitu eta unibertsitatearen baldintza eta eskakizunetara egokitu behar duten ikasleei.

Aurkeztera gatozen berdinen arteko tutoretza-programa pilotu honen helburua, azken batean, unibertsitatean sartu eta lehenengo mailan dabiltzan ikasleen premiei arreta eskaintzea da. Beraz, modu esperimentalean, tutoretza-plan bat abian jartzea da asmoa, ikasle berriengan sumatzen ditugun egokitzapen-premiak asetzeko eta unibertsitateko ikasle berriek akademikoki, gizarteari begira eta pertsonalki bertan txertatzeko egin behar duten bidea errazteko. Horretarako, goragoko mailletako ikaskideek daukaten esperientzia baliatuko da.

Ikasleen Errektoreordetzan erabaki genuen programa hau sustatzea. Errektoreordetza honek, beraz, Donostiako Erizaintzako Unibertsitate Eskolarekin, Psikologia Fakultatearekin, Gasteizko Irakasle-ikasketen Unibertsitate Eskolarekin eta Lan Harremanen Unibertsitate Eskolarekin batera, 2012-2013 ikasturtean jarriko luke programa hau martxan, modu esperimentalean

Gure unibertsitateko ikasle berriengan hautemandako premiak, bestalde, lau multzoren arabera sailkatu ditugu (esku hartzeko lau arloren arabera): *Ikasketa-Irakaskuntza* arloa, *Kudeaketa-alderdiekin* zerikusia duen arloa, *Administrazioarekin* lotutako arloa, eta, azkenik, *Zerbitzuen* arloa.

Jardunak, berriz, hiru fasetan antolatu dira: lehengo fasea, hain zuzen, Planari buruzko informazioa ematea eta plana bera hedatzea da, eta baita tutore-lanak egingo dituzten ikasleak erakarri eta horiek aukeratzea ere. Bigarren faseak, bestalde, prestakuntza-izaera izango du, bai ikasle berrientzat, bai tutore-lanak egingo dituzten ikasleentzat. Eta, azkenik, hirugarren fasea Planaren balioespenarekin lotutakoa izango da, eta hainbat iritzi-galdetegiren bitartez egingo da.

Giza baliabideei dagokienean, lehen mailako ikasleez eta tutore-lanak egingo dituzten ikasleez gainera, ikastegi bakoitzean irakasle eta ikasle zenbait izango ditugu, Ikastegian bertan Planaren Koordinazioa gauzatuko dutenak.

Planaren ebaluazioari dagokionean, ikasle parte-hartzaile bakoitzari banakako jarraipena egingo zaio, eta azkenean, Planaren analisi osotu bat ere egingo da. Gainera, ikasturtean zehar, hainbat galdetegi helaraziko zaizkie, proiektuaren ahulguneak eta indarguneak ezagutu ahal izateko. Teknika horren bitartez lortutako informazioari esker, berdinen arteko tutoretza-plana etorkizunean hobetzeko beharrezkoak diren datuak eskuratuko ditugu.

2.- HELBURU OROKORRAK

Hauek dira, hain zuzen, berdinen arteko tutoretza-planaren helburu orokorrak:

- Ikasle berriei unibertsitaterako jauzi horretan babesa ematea, ikastegian bertan eta unibertsitatean txertatzen lagunduta.
- Ikasleek unibertsitateko bizimoduan parte har dezaten sustatzea.
- Ikasketa-plana, ikastegia bera, zerbitzu eta baliabideak, burokrazia-kontuak eta administrazio-gaiak hobeto ezagutzea.
- Ikasle berriei informazio akademikoa eta administratiboa ematea, UPV/EHUn egingo duten egonaldia hobetze aldera.
- Ikasleek dituzten zailtasunak eta premiak hautematea, eta horientzako irtenbideak aztertzea.
- Ikasle berrien gogobetetzea hobetzea, ikaskuntza-prozesua egokituta eta izan ditzaketen zailtasunei aurrea hartuta; betiere, eskarmentu handiagoko kideen esperientzian oinarrituta.
- Tutore-lanak egingo dituzten ikasleengan euren garapen pertsonal, sozial eta profesionalean eragingo duten zeharkako gaitasunak sustatzea: komunikaziorako, harremanetarako, orientaziorako eta lidergorako gizarte-trebetasunak, besteak beste.

3.- ESKU HARTZEKO ARLOAK. EDUKIAK

Berdinen arteko tutoretza-plana garatzeko, esku hartzeko lau arlori erreparatu beharko zaie:

- ✓ **Arlo akademikoa:** ikasle bakoitzak bere prestakuntza-prozesuan daukan protagonismoari dagokio. Ikasle berriei prestakuntza akademikorako dituzten aukerei, ikasketa-planean gaiak duten zentzuari, gai bakoitzaren eskakizunei eta horiei aurre egiteko moduari buruzko aholkularitza ematea da asmoa; eta hori guztia “eskarmentu handiagoko” ikasleen ikuspegitik eta esperientziatik.
- ✓ **Kudeaketa-arloa:** unibertsitateko bizitzaren kudeaketa-erakundeei buruzko informazioa ematea eta ikasleek horietan parte har dezaten sustatzea da asmoa.
- ✓ **Administrazio-arloa:** sortutako administrazio-informaziorako sarbidea eta horren ezagutza bideratuko da, eta baita ikastegiak eta UPV/EHUK horren transmisiorako dituzten bitarteko, kanal eta baliabideen sarbidea eta ezagutza ere.
- ✓ **Zerbitzuen arloa:** Unibertsitateak eta ikastegiak berak ikasleen esku jartzen dituzten zerbitzuak ezagutaraztea eta horien erabilera sustatzea.

Oraintxe adieraziko ditugun edukiak, hain justu, ikasle berriei hautemandako premietatik sortutakoak dira, eta arestian aipatutako **esku hartzeko lau arloetan** bereizita aurkeztuko dizkizuegu:

AKADEMIKOA	KUDEAKETA	ADMINISTRATIBOA	ZERBITZUAK
<p>EDUKIAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Graduen egitura. Ikasketa-planak - Irakasgaien ezaugarriak - Tutoretza akademikoen funtzionamendua - Barne- eta kanpo-praktikak - Ikasketa-ohitura eta -teknikei buruzko oinarrizko aholkularitza - Ebaluazio-araudia: datak, ordutegiak, ikasgelak - Campus Birtuala... 	<p>EDUKIAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> - UPV/EHUren antolamendua - Unibertsitatearen egitura - UPV/EHUren estatutuak - Ikasleen eskubideak eta betebeharrak - Ikasleen ordezkariak: Ikasle Kontseiluak, ordezkariak etab. - Unibertsitateko elkarteak - Boluntariotza - Garapenerako lankidetzak... 	<p>EDUKIAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikastegiko Idazkaritzaren, Erregistroaren... funtzionamendua - Araudi akademikoak: Bekak eta bestelako laguntzak - Truke-programak - Matrikularako, auto-matrikularako, etab. izapideak - Ebaluazio-deialdiak - UPV/EHUren transmisio-bitarteko eta -baliabideak (web-orriak, pantailak, iragarki-taulak, etab.)... 	<p>EDUKIAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Liburutegi-zerbitzua - Kirol- eta kultura-jarduerak - Unibertsitateko Orientazioa - Ezintasunak dituzten ikasleak txertatzea - Berdintasuna - Orientazio psikologikoa eta piskosexuala - Enplegu- eta autoenplegu-unitateak: lan-munduan txertatzea - Ostaturia eta garraioa - Informatika-zerbitzuak - Unibertsitateko jangelak

4.- METODOLOGIA

4.1.- PROZESUAREN FASEAK

Esku hartzeko ildo teorikoa, lortu nahi diren helburuak eta lehen mailako ikasleen artean hauteman eta erantzun nahi zaien premiak definitu ostean, honako galdera hauek egin behar dira: Nola jardungo dugu? Zer fase gauzatuko ditugu nahi duguna lortzeko?

a) INFORMAZIOA EMATEKO ETA HEDATZEKO FASEA:

Esku hartzeko programaren barne-sozializazioa.

Ekintzak:

- Proposamena *Ikastegiko Batzarrean* aurkeztea. Organo horretan Irakasleek, Administrazio eta Zerbitzuetako Langileek eta Ikastegiko Ikasleen ordezkariak parte hartzen dute; ondorioz, oso organo garrantzitsutzat jotzen da, izan ere, kolektibo horiek, programari ekarpenak egiteaz gainera, horietan parte hartu beharko dute, hainbat mailatan.
- Proiektua unibertsitate-komunitate osoan hedatzea: ikasleei, irakasleei eta AZPei mezu elektronikoak bidalita, ideia zabaltzeko informazio-kartelak jarrita, etab.
- Ikastegiko irakasleen artean koordinatzaile bat aukeratzea (*irakasle koordinatzailea*), eta hura arduratuko da gainbegiratze-lana, koordinazioa, jarraipena eta hautaketa egiteaz eta tutore-lana egingo duten ikasleei laguntzeaz.
- Ikastegiko ikasleen artean koordinatzaile bat aukeratzea (*ikasle koordinatzailea*), Ikasle Kontseiluko ordezkarien artean hauta daitekeena, tutore-lanak egingo dituzten ikasleak bilatzeko zereginak egiteko, landu beharreko edukia proposatzeko (gutunak idatzita), eta baita tutore-lanak egingo dituzten ikasleen prestakuntzan parte hartu eta gauzatutako ekintzei jarraipena egiteko ere.

b) BOLUNTARIOAK LORTZEKO FASEA:

Tutore-lanak egingo dituzten ikasleak erakartzeko prozedura:

Ekintzak:

- Tituluko azken mailako ikasleen artean proiektua eta deialdia hedatzea, ikasle berrien premiei erantzuteko funtsezko "eskarmentua" badutela uste dugun ikasleak aukeratzeko, eta ondorioz, lanaren helburua ezagutzen duten pertsonak aukeratzeko. Proiektuan parte hartzeak dituen abantailak ikusaraztea. Fase honetan, Ikastegiko irakasleek eta Ikasle Kontseiluetakoek eta ordezkariak parte hartu ahal izango dute; betiere, hainbat material erabilita (kartelak, triptikoak...), ikasgelaz ikasgela joanda edo Ikastegiko web-baliabidea erabilita.
- Ikastegiko barne-deialdia argitaratzea. Bertan bilduko dira, hain zuzen, lankidetzaren ezaugarriak, zereginak, eskaerak aurkezteko tokiak eta epeak, aintzatespenak, baldintzak, konpromisoak, etab.

- Tutore-lanak egingo dituzten ikasleen programan parte hartzeko hautapen-irizpideak definitzea eta argitaratzea (tituluko ikasleak, goi mailako ikasturteetan matrikulatutakoak, ikasketa-espeditzea aintzat hartuko da, curriculum aintzat hartuko da –prestakuntza osagarria, hizkuntzak, unibertsitate barneko eta kanpoko eskarmentua–, eta baita mugikortasuna, ordutegi-bateragarritasuna, etab. ere).

c) TUTORE-LANAK EGINGO DITUZTEN IKASLEAK AUKERATZEKO FASEA:

Talde/gela bakoitzerako gutxienez tutore-lana egingo duen ikasle bat behar da. Komenigarria litzateke, agian, taldeko bi ikasle izatea (ahal dela, mutil eta neska bana, berdintasun-irizpideak errespetatzearen).

Ekintzak:

- Hautapen-elkarrizketa. Bertan, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan: eginkizunak gauzatzean pertsonak duen konpromisoa, parte hartzeko duen motibazioa, pertsona aktiboa eta “bizia” izatea, harremanetarako gaitasuna izatea, pertsona dinamikoa izatea, komunikazio-gaitasuna edukitzea, unibertsitateko baliabideak ezagutzea, etab.

d) TUTORE-LANAK EGINGO DITUZTEN IKASLEEN PRESTAKUNTZA-FASEA:

Informazio eta orientazio administratiboa, akademikoa, soziala eta pertsonala bideratzeko beharrezko alderdi guztiak bete beharko ditu. Gainera, proiektuaren helburuei eta gauzatu beharreko eginkizunei buruzko informazioa eman beharko du, eta bide batez, berdinekin esku hartzeko baliabideak izan beharko ditu.

Ekintzak: 4 prestakuntza-saio, ordu eta erdi edo bi orduko iraupenekoak, iraileko lehenengo asteko bata bestearen atzetiko bi egunetan egin beharrekoak.

1. saioa: Esku hartzeko metodologia
 - Tutoretza-plana, tutore-lanak gauzatu dituzten ikasleen eginkizunak
 - Esku hartzeko prozesua, esperientzia pertsonalak
 - Ikasle berrien profila
 - Proiektuan parte hartzeak dituen abantailak (aintzatespena)
2. saioa: Komunikazio-trebetasunak
 - Nola hitz egin jendaurrean, komunikazio-trebetasunak
 - Enpatia eta malgutasuna. Motibazio-teknikak. Premiak hautematea
 - Berdinen arteko harremana, talde-dinamika
3. saioa: Unibertsitatea eta haren funtzionamendua ezagutzea
 - UPV/EHUren egitura
 - Ikasleen ordezkariak (Ikasle Kontseiluak, ordezkariak, etab.)
 - Araudiak (iraunkortasuna, kudeaketa, kexen protokoloa, etab.)
 - Bekak, matrikula-izapideak, baliokidetzak...
 - Ikasleentzako zerbitzuak
 - Ekimenak (kultura, kirolak, etab.)
4. saioa: Ikastegia eta titulua. Harrera eta orientazioa
 - Unibertsitate-ikastegien antolamendua
 - Instalazioak eta baliabideak. Espazioen erabilerari buruzko araudia
 - Ikasketa-plana, tutoretzak, ebaluazioa, araudiak, etab.
 - Nahitaezko praktikak eta borondatezko praktikak (Practicuma)
 - Truke-programak, etab.

EKINTZAK LABURBILTZEN DITUEN KOADROA - IRAUPENA
--

FASEAK	EKINTZAK	IRAUPENA
INFORMAZIOA ETA HEDAPENA	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastegiko Batzarrean programa pilotua aurkeztea. - Proiektua unibertsitate-komunitatean hedatzea. - Ikastegiko irakasleen artean koordinatzaile bat aukeratzea (<i>irakasle koordinatzailea</i>). - Ikastegiko ikasleen artean koordinatzaile bat aukeratzea (<i>ikasle koordinatzailea</i>). 	2012ko martxoa-apirila
TUTORE-LANAK EGINGO DITUZTEN IKASLEAK ERAKARTZEA (boluntariora)	<ul style="list-style-type: none"> - Tituluko azken mailetako ikasleen artean programa eta deialdia hedatzea. - Ikastegiko barne-deialdia idaztea eta argitaratzea. - Tutore-lanak egingo dituzten ikasleen programan parte hartzeko aukeraketa-irizpideak definitzea eta argitaratzea. - Eskaerak aurkezteko tokiak eta proiektuari buruzko zalantzak ebazteaz eta informazioa emateaz arduratzen diren pertsonak zehaztea. 	2012ko apirila-maiatza
TUTORE-LANAK EGINGO DITUZTEN IKASLEAK AUKERATZEA	<p>Talde/gela bakoitzeko tutore-lanak egingo dituen gutxienez ikasle baten premi dago (ahal dela bi).</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hautapen-prozesuan elkarriketa egitea. 	2012ko maiatza-ekaina
TUTORE-LANAK EGINGO DITUZTEN IKASLEAK PRESTATZEA	<ul style="list-style-type: none"> - 1. saioa: Esku hartzeko metodologia. - 2. saioa: Komunikazio-trebetasunak - 3. saioa: Unibertsitatearen funtzionamendua - 4. saioa: Ikastegia eta titulua. Harrera eta orientazioa 	2012ko irailaren 1. astea

4.2.- ESKU-HARTZEA

Esku-hartzearen plangintza egitean, unibertsitate-ikastegi bakoitzak honako alderdi hauek izan beharko ditu kontuan:

- **ORDUTEGIA:** Komenigarria da tutore-lanak egingo dituen ikasleak taldearekin edo gelan egingo duen esku-hartzerako ordutegi finko bat ezartzea. Noiz esku hartu erabaki beharko da; eta une egokitzat jotzen da, hain zuen, parte-hartze masiboko nahitaezko eskolaren baten amaiera, goizeko edo arratsaldeko saio guztien amaierarekin bat eginda. Nolanahi ere, beharrezkotzat jotzen da tutore-lanak egingo dituen ikaslearen ordutegia eta tutoretza jasoko dutenena bateratzea.
- **SAIO KOPURUA:** Tutore-lanak egingo dituen ikaslearen esku-hartzearen plangintzan, erabaki beharko da zenbat saio egingo diren taldeko/gelako (asteko jardunaldia, hilabeteko jardunaldia, etab.). Proposamen honek hilean bi saioko jardunaldia aipatzen du (bat hamabostean behin), nahiz eta taldeko/gelako ikasleen % 30ek hala eskatuz gero, saioen bat errepikatzeko aukera izan.
- **TALDEKO BILERAK:** Saiok taldeko bilera gisa egitea proposatzen da, taldeko/gelako kide guztiek parte hartzen dutela; bilerak, dena den, borondatezkoak izango dira, parte hartu nahi duten pertsonentzat. Saio bakoitzean landu beharreko edukiak azaltzeko, bestalde, tutore-lanak egingo dituzten ikasleek beharrezko baliabide materialak eta ikus-entzunezkoak izango dituzte (fotokopiak, bideo-kanoia, ordenagailua, etab.).
- **TUTORE-LANAK EGINGO DITUZTEN IKASLEAK:** Tutore-lanak egingo dituen ikasle bat talde/gela bakoitzeko; hain justu, lagunduko dien ikasle berrien titulu bereko azken mailako ikaslea izango da. Gainera, interesgarria litzateke tutore-lanak egingo dituzten ikasleak aukeratzean “ordezkoak” ere aukeratzea, ikasturtean zehar izan daitezkeen bajak bete ahal izateko (egoera objektibo bereziek eragindakoak).

Argi azaldu behar zaio taldeari/gelari tutore-lanak egingo dituzten ikasleek ez dakitela landu beharreko guztiari buruzko dena. Ikasle horiek, kasu batzuetan, informazioa emateko erreferenteak izango dira, eta beste kasu batzuetan, berriz, informazioa sortzen den iturrira bidaltzeko erreferenteak.

- **IKASTEGIAK TUTORE-LANAK EGINGO DITUZTEN IKASLEEI EMATEN DIEN BABESA:** Tutore-lanak egin behar dituen ikaslea ikastegira doan lehenengo aldietan, komenigarria litzateke Ikastegiko irakasleen koordinatzaileak lagunduta joatea (irakasle koordinatzaileak lagunduta, alegia). Ezinbestekoa da argi eta garbi uztea Ikastegiak babesa ematen diela taldean/gelan tutore-lanak egingo dituzten ikasleei, bai Ikastegiko Zuzendaritzaren bitartez, bai talde/gela horretako irakasleen bitartez, bai Ikasle Kontseiluaren bitartez...
- **GUTUNAK:** Ezinbestekoa da ikasleen koordinatzailearen (ikasle koordinatzailea) babesa izatea, saio bakoitzean landu beharreko edukiak zein diren jakinarazteko bidaliko diren gutunak prestatzeko. Gutun horiek argi eta garbi adierazi beharko dute zein den landu beharreko edukia eta zein diren taldeko/gelako ikasleekin eduki hori lantzeko baliagarriak izan daitezkeen arauak.
- **TUTORE-LANAK EGINGO DITUZTEN IKASLEEN AINTZATESPENA:** Hainbat formula pentsatu behar dira tutore-lanak egingo dituzten ikasleei eurek gauzatutako zeregina aitortzeko. Aukera askeko kredituek iraun bitartean, aukera ona litzateke hori, baina Gradu ikasketekin beste aukera batzuk aztertu beharko dira (ikusi 14. orrialdea).

Honako koadro hauetan, esku-hartzeen iraupena agertzen da laburbilduta; betiere, hilabeteko saioen kopurua eta saio bakoitzean landu daitezkeen edukia kontuan izanda.

Nola hilabete bakoitzean landu beharreko gaien banaketak, hala aipatutako gaiak, **Ikastegi bakoitzak egokitutakoak izan beharko dute; betiere, kasu bakoitzean sortutako premien eta Ikastegi bakoitzaren egoeraren arabera.**

LEHEN LAUHILEKOKO KRONOGRAMA

HILABETEA	HAMABOSTALDIA	LANDU DAITEZKEEN GAIAK
2012ko iraila	1.	Ikastegiko Harrera Jardunaldiekin lotutako edukia. - Graduen egitura. Ikasketa-planak, irakasgaiak - Barne- eta kanpo-praktikak - Berdinen arteko tutoretza-planaren aurkezpen orokorra
	2.	Taldeari aurkeztea. Programaren azalpena eta garrantzia: saioetan landu beharreko funtzionamendua eta gaia. - Ikasgelako ordezkariak aukeratzea - Bekak: epeak, betebeharrak, etab. - UPV/EHUren posta elektronikoko korporatiboa. Informatika-zerbitzuak
2012ko urria	1.	- Araudi akademikoak: Kudeaketa Araudia eta Iraunkortasunari buruzko Araudia - Irakaskuntza, ebaluazioa eta lanak babesteko plataformak (Moodle, Ekasi...) - Ikasleen eskubideak eta betebeharrak
	2.	- Ikastegiaren antolamendua - Ikastegiko instalazioak. Idazkaritzaren funtzionamendua - Tutoretza akademikoen funtzionamendua
2012ko azaroa	1.	- Ostatua, garraioa, jangelak... - UPV/EHUko web-orria: Informazioa bilatzea
	2.	- Ikasleen ordezkariak. Ikasle Kontseilua aukeratzea - Ikastegiko Batzarra, Saisetako ordezkariak
2012ko abendua	1.	- Ikasleen ebaluazioa. Zalantzak. - Irakasgai batzuk ebaluatzeko baldintzak (lanak, azterketak...) gainditzeko teknikak eta aholkuak - Ebaluazio-prozedurari eta -irizpideei buruzko araudia: iraupena, datak, kalifikatzeko modua, erreklamazioak, etab.
	2.	Neguko oporraldiak direla tarteko, eta kontuan izanda ebaluazioa bertan dagoela, komenigarria da saiorik ez antolatzea, nahiz eta aurrekoa errepikatu litekeen (eskaeraren arabera)
2013ko urtarrila	Ebaluazioa: lehen lauhilekoa. Ez da komeni lan-saiorik antolatzea; dena den, taldearen/gelaren egutegia kontuan izango da	

BIGARREN LAUHILEKOKO KRONOGRAMA
--

HILABETEA	HAMABOSTALDIA	LANDU DAITEZKEEN GAIAK
2013ko otsaila	1.	- Ebaluazioaren emaitzak - Arazoak eta irtenbideak - Tutoretzetan parte hartzearen garrantzia nabarmentzea
	2.	- UPV/EHUren antolamendua eta egitura: Organoak, Campusa, Ikastegiak, Sailak, Institutuak, etab. - UPV/EHUren estatutuak: Ikuspegi orokorra
2013ko martxo	1.	- Kirol- eta kultura-jarduerak
	2.	- Campuseko zerbitzuak: Liburutegia, Orientazioa, Ezintasunak, Psikologia Aplikatua, Berdintasuna, Enplegua, etab.
2013ko apirila	1.	- Unibertsitateko elkarteak - Boluntariotza eta garapenerako lankidetzak - Truke-programak
	2.	- Kexen prozedura (protokoloa) - Iraunkortasunari buruzko Araudia, deialdiak, lehenengo mailan gainditu beharreko kredituak, etab. nabarmentzea
2013ko maiatza	1.	- 2. mailako irakasgaien aurkezpena: edukia, egitura, oinarrizko ezagutzak, irakasleak, ebaluazioa, etab.
	2.	- Irakasgai batzuk ebaluatzeko baldintzak (lanak, azterketak...) gainditzeko teknikak eta aholkuak - Proiektuaren ebaluazioa. Gogobetetzeari buruzko galdetegia eta hobekuntza-proposamenak
2013ko ekaina	Ebaluazioa: bigarren lauhilekoa. Ez da komeni saioak antolatzea; dena den, saio bat egin liteke ikasketa-aldaketei, ikasketa-espeditentzaren lekualdatzeari... buruzko informazioa nahi duten ikasleentzat	

Tutore-lanak egingo dituzten ikasleek "JARRAIPEN-TAULA" izenekoak betetzen joan beharko dute, eta horietan, besteak beste, honako datu hauek gordeko dira: esku-hartzearen hilabetea, astea, eguna eta ordua; parte-hartzaileen kopurua; landu beharreko gaiak; eta egiazki landutakoak. Eredu gisa, hona hemen idazpuru bat:

JARRAIPEN-TAULAREN EREDUA

Erregistro-konpromisoa onartzea

HILABETEA- ASTEAK	EGUNA	ORDUTEGIA	PARTE- HARTZAILEAK		LANDU BEHARREKO GAIK	LANDUTAKO GAIK
			Emakumeak	Gizonak		

4.3.- GIZA BALIABIDEAK

Berdinen arteko tutoretza-programaren egiazko protagonistak, hain zuzen, ikasleak dira: goragoko mailetako ikasleak, ikasle berriei laguntzeko eta informatzeko; dena den, badira esku hartzeko prozesuan hain zuzeneko eragina ez duten beste pertsona batzuk ere; esaterako, programaren irakasle koordinatzailea, tutore-lanak egingo dituzten ikasleen koordinatzailea eta prestakuntzan zein programaren diseinuan parte hartuko duten bestelako pertsona batzuk. Ikus dezagun zein eginkizun gauzatuko dituzten batzuek eta besteek:

a) Irakasle koordinatzailea:

Ikastegiko irakasle bat izango da, zuzendaritza-taldeko kideen artean aukeratutakoa. Parte-hartzea aitortuko zaio, tutoretza-prestakuntzari buruzko egiaztagiriri batekin. Honako eginkizun hauek izango ditu:

- Berdinen arteko tutoretza-programa gainbegiratzea eta hari jarraipena egitea.
- Ikastegiko Batzarrari Programaren funtzionamenduari eta emaitzei buruzko informazioa ematea.
- Programaren garapena koordinatzea eta hari buruzko zalantzak argitzea.
- Tutore-lanak egingo dituzten ikasleei parte hartzera bultzatzea, eta hala badagokio, baita esku-hartze batzuetan beharrezkoak diren AZP eta irakasleei ere.
- Tutore-lanak egingo dituzten ikasleen hautapenean eta prestakuntzan parte hartzea.
- Tutore-lanak egingo dituzten ikasleei instituzionalki babes ematea.
- Azken txostena osatzeko lana koordinatzea eta bertan parte hartzea.

b) Ikasle koordinatzailea:

Ikastegiko ikasle bat izango da, zuzendaritza-taldeak Ikastegiko ikasleen artean aukeratutakoa. Honako eginkizun hauek beteko ditu:

- Tutore-lanak egingo dituzten ikasleak bilatzeko joera sustatzea eta horiek erakartzeko kanpainan parte hartzea.
- Tutore-lanak egingo dituzten ikasleen hautapenean eta prestakuntzan parte hartzea.
- Tutore-lanak egingo dituzten ikasleekin bilera-egutegia, ordutegiak eta landu beharreko gaiak finkatzea.
- Tutoretza-taldeko saioetan landu beharreko edukiak proposatzea eta saio bakoitzean aztertu beharreko edukiekin gutunak osatzea.
- Programaren garapena koordinatzea, irakasle koordinatzailearekin batera; eta tutore-lanak egingo dituzten ikasleek gauzatutako jardunei jarraipena egitea.
- Azken txostena osatzeko lanean parte hartzea.

Eginkizun hauek irakasle koordinatzaileak egin daitezke, Ikastegiko zuzendaritza-taldearen irizpideari jarraituz.

c) Tutore-lanak egingo dituzten ikasleak:

Horiek dira proiektuaren egiazko protagonistetako batzuk, eta horien bizkar geratuko da lan garrantzitsuenetako bat. Lankidetzak eskaintzeko borondatez izena eman duten ikastegiko ikasleen artean aukeratuko dira. 8. orrialdean jasotako hautapen-irizpideei jarraituta, titulu bakoitzeko talde/gela bakoitzeko gutxienez ikasle bat aukeratuko da; dena den, taldeko bi ikasle izatea da gomendagarriena (ahal dela, mutil bat eta neska bat). Honako eginkizun hauek izango dituzte:

- Egin behar diren hautapen-elkarrizketa guztietan parte hartzea.
- Tutore-lanak egingo dituzten ikasleen prestakuntza-prozesuan parte hartzea. Prestakuntza-saioetan parte hartzea.
- Berdinen arteko tutoretza-planeko jardueren garapenean lankidetzak ematea.
- 11. eta 12. orrialdeetan zehaztutako edukiekin lotutako informazioa kideei eskaintzea.
- Ikasleek ikastegiko jardueretan eta kudeaketan parte har dezaten sustatzea.
- Esku-hartzean proposatutako informazio-saioetan parte hartzea.
- Irakasle koordinatzailearekin eta ikasle koordinatzailearekin izango diren koordinazio-bileretan parte hartzea.
- Bileretako jarraipen-taulak betetzea eta aurkeztea; hain justu, honako datu hauek bilduko dituztenak: parte-hartzaileak, landutako gaiak, hautemandako arazoak eta egon litezkeen irtenbideak, gorabeherak, ikasleek egindako gomendioak, hobekuntza-iradokizunak, etab.
- Azken txostena osatzeko lanean parte hartzea.

Bada ebazteko geratu den gai bat; esan nahi baita, **tutore-lanak egingo dituzten ikasleen lankidetzak-zeregina aitortzeko** jarraitu beharreko metodoa ezartzea. Hasteko, garrantzitsutzat jotzen da aholkularitza-programaren batean parte-hartzeari buruzko "diploma" berezi bat ematea (prestakuntza edo ekintza aitortzeko egiaztagiria). Egiaztagiri hori Tituluaren Europako Gehigarria (TEG) gehitu liteke, zeharkako gaitasunak eskuratzeko (taldeak mugiarazteko gaitasuna, enpatia, komunikazio-trebetasunak, etab.). Zenbait titulutan, bestalde, esperientzia hori baliatu liteke, Gradu Amaierako Lanerako bide bat irekitzeko (ikerketak-ekintza).

Dena den, aukera askeko kredituak dauden bitartean, ikasturteko gehienez ere 3 kreditu eman ahal izango dira. Ikasketak-plan berrietan, hautazko hiru kreditu eman ahal izango dira jarduerak espezifikoenatik (ECTS kredituak).

Gainera, parte-hartze hau aitortzean, lehenetsuna eman dakieke ikasle horiei (edo gutxienez, puntuatu), praktiketako ikastetxeetako esleipenarako, edo mugikortasun-programetan parte hartzeko, edo Liburutegietako maileguetan abantailak izateko (doktoratu aurreko ikasleentzat egokitu).

Bada aintzatespenerako azken aukera bat ere, kostu ekonomiko gehigarria izan dezakeena: euren intereseko Biltzarren batean edo udako ikastaroren batean edo kultura-jardueraren batean izena doan eman ahal izatea edo UPV/EHUko dendako produktuak eskuratzeko bono bat oparitzea. Bide honek, baina, ikastegiaren arteko bereizketa ekar lezake (batzuek horretarako aukera izango dute; beste batzuek, haatik, ez); beraz, gomendatzen da soil-soilik kasu berezietan jotzea horretara.

d) Ikasle berriak (1. maila):

Tutoretza-planaren azken helburua dira. Borondatez hartuko dute parte programan, eta honako eginkizun hauek izango dituzte:

- Hainbat bileratan parte hartzea (taldekakoak, bakarkakoak, elkarrizketak...).
- Antolatutako jardueren garapenean parte hartzea.
- Unibertsitate-bizimoduan parte-hartzeko, esku hartzeko, lankidetzan jarduteko edo kritikatzeko gaitasunak garatzea.
- Gizartean eta lanbide-munduan ondo moldatzeko gaitasunak garatzea.
- Euren lanbide-proiektua osatzeko zereginen parte hartzea.
- Inkesta bati erantzutea, programa bera edo tutore-lanak egingo dituzten ikasleak balioetsita.

e) Programan parte hartuko duten bestelako pertsona batzuk:

Nola Planaren diseinuan parte hartzen ari diren pertsonak, hala tutore-lanak egingo dituzten ikasleen prestakuntza-prozesuan parte hartuko dutenak izan daitezke, edo proiektu hau modu esperimentalean ezarriko den Ikastegietako langileak, zein administrazio eta zerbitzuetako langileak eta baita irakasleak eurak ere. Laguntza-zereginak egingo dituzte.

4.4.- BALIABIDE MATERIALAK

Prozesu osoan barrena erabiliko diren laguntza-materialak biltzen ditu: hasi proiektua aurkezten denetik bertatik (barne mailan) eta proiektua amaitu artean (ebaluazioarekin).

Hona hemen programaren fase bakoitzean hauteman ditugun premiak:

✓ “Informazioa eta hedapena” fasean:

- Proiektua Ikastegiko Batzarrean, Ikasle Kontseiluan eta unibertsitate-komunitatean aurkezteko eskema-laburpena (informazio-triptikoa).

✓ “Tutore-lanak egingo dituzten ikasleak erakartzea eta hautatzea” fasean:

- Proiektuaren egituraren azalpenenezko eskema-orria, goragoko mailetako ikasleen artean eta tutore-lanak egingo dituzten ikasleak aukeratzeko elkarrizketetan hedatu beharrekoa.
- Tutore-lanak egingo dituzten ikasleak aukeratzeko deialdia (webgunean, ikastegiko pantailetan, goragoko mailetako irakasleen bitartez, ikasgelaz ikasgela, etab. zabaldu beharrekoa) eta deialdiaren berri emateko kartelak eta informazio-triptiko zein -diptikoak.
- Tutore-lanak egingo dituzten ikasleak aukeratzeko kontuan hartu beharreko irizpideekin lotutako eskema-orria.

- ✓ “Tutore-lanak egingo dituzten ikasleak prestatzea” fasean:
 - Tutore-lanak egingo dituzten ikasleei buruzko informazio-fitxa (identifikazio-datuetatik eta bestelako datu akademikoetatik jasotakoa).
 - Tutore-lanak egingo dituzten ikasleentzako konpromisozko fitxa.
 - Tutore-lanak egingo dituzten ikasleen informazio-zeregina babesteko gida (tutorearen eskuliburua).
 - Prestakuntza-prozesuan landu beharreko edukiei buruzko hainbat fotokopia (prestakuntza-materialak).
- ✓ “Proiektuaren garapena” fasean:
 - Proiektuaren laburpen-eskema, tutore-lanak egingo dituzten ikasleek ikasle berriekin egin beharreko saioetan erabili ditzaten.
 - Erregistro-orria, tutore-lanak egingo dituzten ikasleek euren ikasle berriek osatutako taldearen identifikazio-datuak jaso ditzaten.
 - Hilabeteko saioetan landu beharreko edukiak jasoko dituzten hileroko gutunak.
 - Saioen erregistroarako jarraipen-taulak.
- ✓ Balioespen-galdetegia:
 - Ikasle parte-hartzaileen gogobetetze maila ezagutzeko eta sortutako arazoen ebaluazioa egiteko.

5.- EBALUAZIOA

Programaren garapenari jarraipena egitea da helburua, modu indibidualean (taldez talde, tutore-lanak egingo dituzten irakasle bakoitzarekin), eta baita programaren analisi bateratua egitea ere, azken txostena osatuta. Eta txosten hori, hain zuzen, Ikastegi bateko tutore-lanak egingo dituzten ikasleek, Ikastegiko ikasle koordinatzailearekin batera, irakasle koordinatzaileari aurkeztu beharko diote. Ikasturtean zehar, hainbat inkesta egin ahal izango dira, datuak eskuratzeko, eta era horretan, pixkanaka-pixkanaka plana hobetu ahal izateko.

Gainera, ebaluazio-prozesu honetan, zenbait kontu izan behar dira kontuan:

- Ikasle parte-hartzaileek programaren edukiari eta filosofiari begira duten gogobetetze maila.
- Ebaluazio-adierazleak (programaren helburuak zenbateraino lortu diren).
- Ebaluazio-baliabideak (elkarrizketak, jarraipena, galdetegiak, fitxak, etab.).
- Prestakuntza-prozesuaren garapenean izan diren gorabeherak.
- Premiak hautematea (ikasleak eta ikastegia).
- Hobekuntza-proposamenak: etorkizunerako ekarpenak.
- Azken txostena.

6.- BIBLIOGRAFIA

- Aguilera, J.L. "La tutoría en la Universidad: Selección, Formación y Práctica de los Tutores: Ajustes para la UCM desde el Espacio Europeo de Educación Superior." Zuzendaria: González, F.E. Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea, Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila, 2010.
- Álvarez, P.R. et al. "La tutoría entre iguales como estrategia para la adquisición de competencias genéricas en la enseñanza superior". Lanerako Prestakuntzarako Nazioarteko V. Biltzarra. CD-ROM argitalpena, Granada, 2009.
- Arbizu, F. et al. "Algunos modelos de abordaje de la tutoría universitaria". *Psikodidaktika Aldizkaria*. 2005, 10. liburukia, 1. zk., 7-21 orr.
- Arco, J. L.; Fernández, F.D. "Eficacia de un programa de tutoría entre iguales para la mejora de los hábitos de estudio del alumnado universitario". *Psikodidaktika Aldizkaria*. 2011, 16. liburukia, 1. zk., 163-180 orr.
- Boronat, J. et al. "Dimensión convergente de la tutoría en la universidad: tutoría entre Iguales". In: *Unibertsitate Irakaskuntzako Ikerketa Sareen V. Jardunaldiak*. Hezkuntza Zientzien Institutua, Alacant, 2007.
- Cáceres, P. eta García, E. "El Plan de Acción Tutorial Universitario (PATU) en la U.P.V." Valentiako Unibertsitate Politeknikoa, 2000.
- Fernández, F.D. "La tutoría entre compañeros en la universidad". Zuzendariak: Arco, J.L.; Justicia, F.; Pichardo, M^a C. Granadako Unibertsitatea, 2007.
- Marchena, E. et al. "Tutoría entre Iguales en la universidad de Cádiz". Cadizko Unibertsitatea, Hezkuntza Zientzien Fakultatea, 2006.
- Menéndez, J.L. "El problema terminológico de la tutoría entre iguales y la afirmación de su especificidad didáctica". *Observar*. 2010, 4. zk., 66-94. orr.
- Muñoz, A. "La tutoría de iguales como recurso para la orientación universitaria". In: *Malagako Unibertsitatean Hezkuntza Berrikuntzari eta irakaskuntza birtualari buruz egindako III. Jardunaldiak*". Malagako Unibertsitatea, 2009.
- Sanz, R. "Tutoría y atención personal al estudiante en la universidad". Madril: Síntesis, 2009.
- Burgosko Unibertsitatea. "Aholkulari Programa". Eskuragarri dago Interneten (<http://www.ubu.es/es/ifie/programa-mentor>)
- Sevillako Unibertsitatea. Goi Eskola Politeknikoa. Eskuragarri dago Interneten (www.eps.us.es/...accion-tutorial.../2plan-accion-tutorial-eps-11-12.pd...)
- Madrilgo Carlos III Unibertsitatea. "Programa compañeros. Tutorías entre iguales". Eskuragarri dago Interneten http://www.uc3m.es/portal/page/portal/orientacion_personal_participacion/companeros